

EZ DUT SINESTEN

John Searle estatubatuar filosofoak kontatzen duenez, Oxfordeko zenbait ikaslek osatutako Voltaire elkarteak bi urtetik behin-edo biltzen zen Bertrand Russellekin. Russellek laurogeitapiko zituela, ikasleei ez zitzaien galdera hoberik okurritu beretzat Londreseko jatetxean: “Eman dezagun erabat oker izan zarela Jainkoaren existentziari buruz. Eman dezagun istorio osoa egiazkoa dela eta San Pedroren aurrera iristen zarela. Bizitza osoa Jainkoaren existentzia ukatzen aritu ondoren, zer esango zenioke...Hari?” Russellen erantzuna berehalakoa eta ziurra izan omen zen: “Tira, Harengana joan eta esango nioke, ‘Ez diguzu nahikoa ebidentziarik eman!’”

Jainkoaren existentziaren problema filosofian aurkitzen dugun haundienetakoa da, haundiena ez bada. Russellen *Why I am not a Christian* (“Zergatik ez naizen Kristau”) politaren gaztetako irakurketak indartu zuen nire ateismoa. Gerora kezkatuta utzi ninduen berriz Jainkoa badela uste izateko Pascalek ematen duen argudioaren indarrak. Honela dio, gutxi gora behera:

“Bietako bat, Jainkoa badago ala ez dago, eta, bietako bat, sinesten dut ala ez dut sinesten. Lau posibilitate daude beraz: 1. Jainkoa badela sinesten badut eta Jainkoa egon baldin badago, zerura joango naiz eta zorion infinitua jasoko dut; 2. Jainkoa badagoela sinesten badut eta ez baldin badago, orduan galerak sinesteari lotzen zaizkion horietxek izango ditut bakarrik; 3. Jainkoa badagoela sinetsi ez eta Jainkoa baldin badago, infernura joango naiz eta betiereko tormentuak jasan beharko ditut; eta 4. Jainkoa badagoela sinetsi ez eta ez badago, ez dut ezer irabazten ezta galtzen ere. Garbi dago, Jainkoa existitzearen probabilitatea txikia izanik ere, askoz haundiagoa dela sinestearen onura ez sinestearen galera baino. Horregatik, hobe dut Jainkoa badagoela sineste.”

Eskerrak Gabriel Arestiri, ateismo krisi honen kezka guztiak lasaitzera etorri zait-eta:

“Egun batean
munduak akabatuko dira.

...

Eta zeruko Jaunak
Josafateko zelaian
guztiok
juzgatuko gaitu.
Orduan,
azkenak
izanen dira
lehenak,
eta haren eskuman
jarriko gara
ezkerrekoak.”